

Oiangu parkeko udako taberna txikia edo txiringittoa kudeatzeko kontratua

UDA GARAIAN ORDIZIAKO OIANGU PARKEKO UDAKO TABERNA TXIKIA EDO TXIRINGITOA KUDEATZEKO ZERBITZUA EZAUGARRITUKO DUTEN ADMINISTRAZIO BALDINTZAK ETA BALDINTZA TEKNIKOAK

1. ARTIKULUA. Kontratuaren xedea.

Kontratu honen helburua da Oiangu parkeko udako taberna txikia edo txiringittoa uda garaian (2019ko uztaila-abuztua-iraila) kudeatzea.

2. ARTIKULUA. Kontratatze gaitasuna.

Ordiziako Udalak jarduteko gaitasuna daukaten eta kontratatzeko debekurik ez duten pertsona naturalekin zein pertsona juridikoekin kontratatu ahal izango du.


Kontratu hartzaileak ez du inolako zorrik izango Ordiziako Udalarekin. Era berean, kontratu hartzailea egunean izango da Gipuzkoako Foru Ogasunarekiko betebeharre dagokienez eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharre dagokienez.

3. ARTIKULUA. Kontratuaren iraupena.

Oiangu parkeko udako taberna txikia edo txiringittoa kudeatzeko zerbitzua uda garaira mugatuko da (uztaila, abuztua eta iraila). Udalak zehaztuko ditu zehazki irekiera eta amaiera datak.

4. ARTIKULUA. Proposamenak aurkezteko tokia eta epea.

Proposamenak aurkezteko 6 egun naturaleko epea emango da iragarkia udaleko webgunean argitaratzen denetik zenbatzen hasita, alegia, azkeneko eguna uztailak 10 asteazkena izango da, egun hori barne.



Ordiziako Udala
Gipuzkoa

2019SCTX0008

Proposamenak Ordiziako Udaleko erregistroan aurkeztu beharko dira aipatu epe barruan, modu telematikoan, edozein unetan; Udaletxeko Erregistro Orokorrean (Udaleko arreta zerbitzuan), 8:30etatik 13:30etara, eta arratsaldean Udaltzaingoa, gaueko 21:00ak arte.

Proposamenak gutun-azalean aurkeztuko dira "Oaingu parkeko udako taberna txikia edo txiringitoa kudeatzeko zerbitzua" izenburupean. Eskatzaileak bere identifikazio datuak adierazi behar ditu bertan, baita administrazioa berarekin harremanetan jartzeko helbide elektronikoa eta telefono zenbakia ere.

5. ARTIKULUA. Zerbitzuaren esleipenerako balorazio irizpenak, puntuaketaren banaketa, esleipen prozesua, formalizazioa eta exekuzioa.

Zerbitzuaren esleipenerako balorazio irizpenak eta puntuaketa

1. Memoria proiektua: 80 puntu.

Bertan zerbitzuaren kudeaketarako dauden baliabide pertsonalak eta kudeaketa plana zehaztuko dira.

Memoria proiektua gehienez 5 orritan egingo da, orriak DIN A4koak izango direla, eta bi aldeetatik.

80 puntuak honela banatuko dira:

- Eskaintzaren aniztasuna: 20 puntu.

(pintxoak, razioak, ogitartekoak, plater konbinatuak, menuak, menu bereziak...)

- Tabernako bezeroei emango zaizkien prestazioak: 20 puntu.


(eramateko erraztasuna, terraza zerbitzua...)

- Parkean bezeroak erakartzeko proposatzen diren ekintzak: 20 puntu

(haurrentzako ekintzak, pintxo-potea, afari tematikoak, zinema, kontzertuak...)

- Udalerriko langileak izatea: 20 puntu gehienez.

5 puntu emango dira Ordizian erroldatuko pertsona bakoitzeko, gehienez 20 puntuak lortu arte.



2. Ostalaritza eskoletan lortutako ezagutza: 20 puntu.

Arlo horretako goi mailako ikasketak dituela egiaztatzen duenari 20 puntu emango zaizkio eta erdi mailako ikasketak dituenari 10 puntu emango zaizkio. Esleipenduna Enpresarien Elkartea izango balitz, bera osatzen duten pertsonen ikasketak batuko dira, gehienezko 20 puntuak lortu arte.

Esleipen prozesua

Udalak proposamenak aurkezteko epea igarota aurkeztutako proposamenak baloratuko ditu eta udaleko web orrian argitaratuko ditu horren emaitzak. Esleipena berehalakoa izango da, aintzat hartuta uda sasoiaren hasia dela. Hori dela eta, egoera presazkoa da.

Formalizazioa

Esleipenaren ostean bi alderdien arteko formalizazioa burutuko da eta hori eginda esleipendunak hurrengoak aurkeztuko ditu:

- a) Lanen programa.
- b) Identifikazio fiskalaren zenbakia eta jarduera ekonomikoei buruzko zergan eta helbidean alta emanda dagoenaren agiria.
- c) Aseguru polizaren kopia.

Exekuzioa


Kontratua kontratistaren kontura burutuko da. Esleipendunak dokumentu honetan jasotzen diren baldintzak beteko ditu edozein kasutan.

6. ARTIKULUA. Esleipendunaren betebeharrak.

Esleipendunak honako zerbitzuak emango ditu:

- Taberna zerbitzua eta sukalde zerbitzua udako taberna txikian edo txiringitoan, beti ere zerbitzu horiek modu egokian emateko osasun eta higiene aldetik lege betekizunak bermatzen badira. Era berean, inguruaren garbitasunaz eta komun publikoen garbitasunaz (egunero) arduratuko da, eta esleipendunak udako kontratuak dirauen epean Oianguko baserrian dagoen etxebizitzan lo egin beharko du, baserria eta parkearen zaintza lanak burutzeko.

-Zerbitzua hobetzeko baserriko sukaldea modu osagarrian erabiltzeko aukera izango da, baina horretarako beharrezkoak diren garbiketa lanak eta egokitzapenak esleipendunak bere gain hartu beharko ditu eta Udalak espresuki eskatu beharko den erabilera baimendu beharko du



Ordiziako Udala
Gipuzkoa

2019SCTX0008

(labea, hozkailua...). Edozein kasutan, publikoari zerbitzua udako taberna txikian edo txiringitoan soilik eskaini ahal izango zaio.

Esleipendunak honako betebeharrak izango ditu:

- Udako txiringittoa publikoarentzat irekita izatea, uda garaian. Txiringittoa, astelehenetan ixteko aukera izango da, asteko deskantsu egun gisa.

- Irekiera eta itxiera ordutegiak errespetatzea: 11:00 tatik 21:00etara

Itxiera ordutegia areagotzeko aukera izango da beti ere udalaren baimenarekin eta jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren inguruko indarreango legedia aintzat hartuta.

- Esleipendunaren ardura izango da txiringittoa eta inguruaren segurtasuna kontrolatzea, txiringittoa irekitzea eta ixtea, eta bertako ordena eta elkarbizitza egokia izan dadin bermatzea.

- Erabilera publikoko komunen garbiketa esleipendunari dagozkio, baita inguruaren zainketa lanak burutzea ere. Garbiketa lanak burutzeko tresnak eta produktuak kontratu hartzailearen kontura izango dira. Komunen garbiketa egunero egingo da, eta baita txiringittoa eta sukaldearena ere.

- Uda sasoia amaituta, hau da, txiringittoa zerbitzua amaitzen denean, zerbitzua ematen hasi aurretik zegoen egoera berean utziko da. Kontratua sinatzerakoan baserri eta txiringittoa egoeraren inbentarioa jasoko da, amaieran utzitako egoera ziurtatzeko erabiliko dena.

- Kudeaketa zerbitzua emango duten pertsonak eta, bereziki, bezeroekin harremana izango dutenak, euskaraz komunikatzeko gai izan beharko dira.


- Era berean, zerbitzua ematean sor daitezkeen komunikazioetan modu berezian zainduko da emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna eta ez da inongo bereizketarik onartuko.

- Zarata mailak indarrean diren arauak definitzen dituzten mugak ez gaitzatea.

- Esleipendunak ingurugiroaren zaintza bultzatuko dituzten ekintzak gauzatuko ditu. Zerbitzuak sortzen dituen hondakinen kudeaketa egokia egitez gain erabiltzaileek sortutako hondakinak gaika biltzeko neurriak hartuko dira. Terrazetako mahaietan hautsontziak jarriko dira.

- Jatorri edo nazionalitate ezberdina izateagatik ez diskriminatzearen printzipioa errespetatzea.

- Esleipendunak kontuan izango ditu zerbitzuaren funtzionamenduarentzat onuragarriak diren udal teknikarien aholkuak.



- Esleipenduna zerbitzua modu egokian emateko beharrezkoak diren produktuak erosteaz eta saltzeaz arduratuko da eta bere gain hartuko ditu produktuen kalitatearen gaineko ardurak.
- Esleipendunak lan arloan eta laneko higiene eta segurtasun arloetan indarrean dauden lege xedapenak beteko ditu eta Administrazioa horien ez betetzeak sor daitekeen erantzukizun orotik salbuetsita egongo da.

7. ARTIKULUA. Hizkuntza ofizialak.

Hurrengoak betebeharrak zehazten dira:

Hizkuntza gaitasuna

Hizkuntza gaitasunari dagokionez, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila egiaztatu beharko dute, bai esleipendunak, baita publikoarekin lanean arituko diren langileek ere. Hori frogatzen duen ziurtagirik izan ezean udaleko euskara zerbitzu teknikariarekin egindako elkarrizketa bidez bermatuko da euskara maila betetzen dela.

Hizkuntza paisaia

Errotuluak, oharrak, karta, seinaleak eta gainerako komunikazioak elebitan egingo dira, betiere euskarari lehentasuna emanez.

Hizkuntzaren erabilera bezeroekin


Administrazioak onartutako hizkuntza irizpideei jarraituz, herritarrekin lehen hitza euskaraz egingo da. Era guztietako jakinarazpenak eta komunikazioak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarari lehentasuna emanez.

8. ARTIKULUA. Laguntzaileak.

Esleipendunak, hala ematen den kasuan, laguntza ematen duten pertsonen izenak adierazi beharko dizkio udalari.

9. ARTIKULUA. Kontratuaren transferentzia.

Kontratastak ezingo dio kontratua hirugarren bati transferitu udalaren alde aurreko baimenik gabe.



10. ARTIKULUA. Asegurua.

Esleipendunak bere egite edo ez egiteen ondorioz pertsonen edo ondasunen gain sortzen diren kalteengatik erantzungo du.

Betebehar hori asetzeko erantzukizun zibileko 200.000 euroko poliza egin beharko du.

Era berean, instalazioari egindako kalteengatiko 120.000 euroko poliza egingo da.

Bietan onuradun bezala Ordiziako Udala agertu beharko da.

11. ARTIKULUA. Segurtasun sozialean afiliazioa.

Kontratatik alta emango du Jarduera ekonomikoen lizentzian eta Segurtasun Sozialen afiliazioa eta kotizazioa, azken hori langile autonomoen erregimen berezipean.

12. ARTIKULUA. Lanabesak eta tresnak.

Ordiziako Udalak gutxieneko tresnak jarriak izango ditu kontratua hasterako. Espresuki debekatzen da lanabeson erabilera pribatua egitea.

13. ARTIKULUA. Jarduera mugatuak.

Kontratatik ezin izango du inongo lanik egin, ezta konponketa soilik ere udalaren baimen espresarekin eta idatzizkoarekin ez bada.


Halaber, ez du merkatal edo politika izaerako txartel, letrero edo iragarkirik jartzerik izango.

Espresuki debekatzen da makina txanponjaleak edo jokokoak jartzea.

Kontratatik errespetatu beharko du 18 urte azpikoei edari alkoholdunak eta tabakoa saltzeko debekua.

14. ARTIKULUA. Prezioak.

Kontsumizioen prezioak ez dira inolaz ere eskualdeko batz bestekoak baino garestiagoak izango.



15. ARTIKULUA. Ordezkapenak.

Kontratuaren arduradunak gaixotasunagatik edo istripuagatik, baimenengatik etab. baja izanez gero kontratistak ordezkoak izendatu beharko ditu, zerbitzua eten ez dadin eta kontratuan jasotakoaren baitan modu egokian bete dadin.

Udalari alde zuzenetik jakinaraziko zaio aurreko apartatuko egoera ematen den kasuan.

Ordezkoak esleipendunak dituen baldintza tekniko berdinak bete beharko ditu.

16. ARTIKULUA. Eraentza ekonomikoa.

Hileko 200 euroko kanona ezarriko da zerbitzua garatzeko. Uztaileko kanona zerbitzua ematen hasten den egunetik zenbatzen hasita proportzioan kalkulatu da.

Ordiziako Udalak ez dio kontratistari diru-ekarpenik emango Oianguko txiringitoaren garbiketagatik eta komunen garbiketagatik, ezta zainketa lanengatik ere.


Kontratistak zerbitzuaren ustiaketatik lortzen dituen sarrerak jasoko ditu.

Udalak bere gain hartuko du baserriaren azpiegituren hornidura gastuak (sukaldearen erabileraren arabera esleipendunari baimena ematerakoan gastuak bere gain hartzeko baldintza ezartzeko aukera izango du). Txiringitoko argia, ura-estolderia, zaborra eta gasaren gastuak esleipendunaren kontura joango dira.

17. ARTIKULUA. Jardueraren kontrola.

Ordiziako Udalak lokalaren funtzionamendua, barruko ordenua, ixteko eta irekitzeko ordutegiak eta taberna, sukalde zein komunen garbitasuna eta osasun baldintzak ikuskatzeko eta kontrolatzeko ahala izango du.

Inongo akatsik hautematen bada behar den akta jaso eta ohartarazpena egingo da. Bigarrenez akatsa eginez gero kontratua eteteko aukera egongo da eta eskubiderik gabe geldituko da kontratuaren hartzailea. Hala galdatuta handik alde egingo ez balu udalak bere esku dituen neurriak hartuko ditu, esleipenduna handik joan dadin.



18. ARTIKULUA. Bermea.

Esleipendunak 6.000 euroko bermea aurkeztuko du kontratua burutu aurretik. Berme hau kontratua bukatu eta udal zerbitzuek instalakuntzak orain dauden bezala aurkitzen direla ziurtatu ostean bueltatuko da.

19. ARTIKULUA. Zuzenketak.

Udalak, Idazkaritza sailaren bidez, gerta litezkeen arau hausteen aurrean egoki deritzon zuzenketak inposatuko dizkio kontratistari.

20. ARTIKULUA. Kontratuaren amaiera.

Kontratuaren epealdia bukatzen denean desegingo da kontratua eta kontratistak lokala eta bertako ondasun guztiak udalaren eskutan utziko ditu.


Tabernaren ustiapen zerbitzu kontratua amaitzeko arrazoiak izan daitezke hurrengoak:

1. Kontratistak bere oinarrizko betebeharretan arau hauste larria eginez gero. Aurrez ohartarazpena egingo zaio hutsegiteen berri eman eta zentzuzko epealdian horiek subsanatzeko. Subsanzio ezetik etorriko da amaiera ezein kasutan.
2. Udalari zerbitzua lehengoratzea, kontratuan ezarritako epea ez betetzeagatik.
3. Udalak zerbitzua erreskatatzea, aurretik ezarritako prozedura bidez beharra justifikatzen bada.
4. Porrot edo ordainketa etendura aitopenagatik edo kudeatzen duen pertsona juridikoaren iraungitzeagatik.
5. Legez jasotako beste arrazoiengatik.

21. ARTIKULUA. Kontratuaren etetea.

Udalak kontratua salatzeko eta indarrik gabe uzteko gaitasuna izango du, dokumentu honetan jasotako baldintzak ez badira betetzen.

Udalak edozein unetan galda dezake kontratuaren ondorioz hartu diren obligazioen ordainketetan eguneratua izatea eta zor dituenak kobratzeko ahal izango du premiamendu bidez, dagokion gainkargarekin hala badagokio.



Ordiziako Udala
Gipuzkoa

2019SCTX0008

22. ARTIKULUA. Datuen babesa.

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak 2016ko apirilaren 27ko pertsona fisikoen datu pertsonalen tratamenduaren eta datuon zirkulazio librerako Europako parlamentuko eta kontseiluko 2016/679 Erregelamendutik eta datu pertsonalen babeserako eta eskubide digitalen bermerako abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikotik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu.

23. ARTIKULUA. Azken xedapena.

Ordiziako Udalak argituko du Baldintza plegu hau interpretatzetik sor daitekeen zalantza oro.

Plegu honetan aurreikusten ez den aspektuetan azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legeko xedapenak eta kontratuari aplikagarri zaizkion gainerako indarrean dauden lege xedapenak aplikatuko zaizkio.

Ordizian, 2019ko uztailaren 3an